

COLORBRAIN.

DIRU SARRERAK.

Gure proiektua abian jarri ondoren, hainbat atal dituen web orria denez, diru sarrerak izaten laguntzen digu. Horretarako, hona hemen zerbitzuaren araberako diru-iturriak:

- **Web orria bisitatzea.** Badakigu web orrialdeak dirua eman ahal digula baina beste atalekin konparatuz oso kantitate gutxian irabaziko dugu. Konkretuki egunean 1000 bisitagatik 2€ irabaziko ditugu. Konsense gara bakarrik diru sarrera honekin ezin dugula proiektua aurrera eraman.
- **Produktuak.** Horregatik, web orrialdeko denda atalean *colorbraineko* produktuak eskuragarri izango ditugu bezeroek eros ditzaten. Behean azaldutako prezioetan oinarrituz
- **Banakako terapiak.** Banakako terapiak ere egingo ditugu premium atalean izena emanaz gero. Banakako terapiak segun eta zenbat saio hautatu prezio bat edo beste ditu, behean azaldutako tarifatan oinarrituz.
- **Sare sozialak.** Sare sozialetara igotzen ditugun post-etatik edo bideoengatik dirua lor dezakegu ere. Hasieran ez dugu diru handirik lortuko baina jarraitzaileak eta bisitak ditugunean segun eta zenbat pertsonak jarraitzen diguten orduan eta prezio bat edo beste irabaziko dugu. Hori gutxi balitz, denbora igaro ahala marka edo produktu desberdinekin kolaborazioak egiteko prest gaude gure proiektua ere ezaguna egiteko.
- **Donazioak** bizum bidez edo banku kontutik. Web orrian ere, banku kontu bat izango dugu baita telefono zenbaki bat bertara donazioak egiteko bakoitzak nahi duen kantitatean.

ES87 0182 6112 19 880647 9323

Diru sarrera hauek lortzeko, gure lantaldeak prezio batzuk finkatu ditu produktuentzat. Hasieran finkoak izango dira, baina eskaeraren arabera aldatu egin daiteke edota urteko datak direla eta. Baliteke, gabonetan edo beherapen egunetan prezioak behera egitea:

Banakako terapiak. Aurretik aipatu dugunez baliteke pertsona batzuek talde terapiearekin nahiko ez izatea eta banakako terapia egitea nahi dutenak. Horretarako, *premium* atalean pack desberdinek osatutako tarifak izango ditugu. Banakako terapiak online edo gizarte etxean egingo ditugu pertsonaren nahien arabera eta honako tarifa hauek aukeran ditugu:

- **PACK 1:** 4 elkarrizketa/hilabetean 50€.
- **PACK 2:** 8 elkarrizketa/hilabetean 95€.
- **PACK 3:** 12 elkarrizketa/hilabetean 140€.

Banakako terapiaz aparte, gure markako **produktuak** eskuragarri ditugu bakoitzak nahi dezana eros ditzan. Hortaz aparte, pazienteek kantitate handietan erosteko aukera izango dute modu merkeago batean gero haiek sal ditzaten dirua lortzeko banakako terapiak egiteko. Hasieran, hauek izango dira produktuen prezioak:

- **Sudaderak:** 18€
- **Kamisetak:** 15€
- **Totte bag:** 12€
- **Egutegiak:** 12€
- **Edalontzia:** 10€
- **Libretak edo kuadernoak:** 10€
- **Pegatinak eta txapak:** Dohainik.

Dokumentu honetan produktu batzuen argazkiak jarri ditugu baina ditugun produktu guztiak ezagutzeko eta eskuragarri ditugun neurriak jakiteko, jarraian utziko dugun linkean ikusgai egongo dira.

[PRODUKTU GUZTIAK](#)

